

begoñazpi astekaria



2023KO GAZTE ROLE MODEL SARIAK

IKASLEENTZAKO EREDUAK



IÑAKI GARCINUÑO



IRAIA ITURREGI




EREDU PROFESIONALA



GIZARTE KONPROMISOA

Aurtengo 'Gazte Role Model' sariaren irabazleak: entrenatzaile eta futbolari ohia dan Iraia Iturregi eta Iñaki Garcinuño enpresaria



GAZTE ROLE MODEL SARIA

Hezkuntza alorrean eredu dan sari honek, ikasleentzat ahalegin eta hobetzearen eredu izango diran saritu bi honeen lana ez eze, gizarte konpromisoa be aintzat hartzen dau, horixe baita sariaren helburu nagusia. Saria, Nestor Basterretxea eskultoreak Ikastolari egindako eskultura, zemendiaren 14an Begoñazpi Ikastolan izango dan ekitaldian emongo da. Bertan izango dira Ainaro Basurko, Ekonomia Sustapeneko diputatua, Begoña Pedrosa, Hezkuntza sailburuordea, Itxaso Erroteta, Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol zinegotzia eta Joseba Segura, Bilboko gotzaina.

Ikastetxe onenetan

Begoñazpi Ikastolan ikasten zein eredu barritzaileak eta medologia barriak aztertzen jarraitzen dogu. Orain, Haur eta Lehen Hezkuntzako talde bat, Madrilgo Arcángel San Gabriel Eskolan egon da, bertan egiten dan lana aztertu eta ikusten. Beti be, gure ikasleen hezkuntza prozesuan hobekuntzak txertatu zein egiteko xedez.



Matematika, jolasa baino gehiago

Ikasleentzat jolasa baino ez dana, Begoñazpi Ikastolako irakasleentzat pedagogia tresna izango da. Honek, zenbakien ulermena lantzeko eta ikasteko bidea emongo deutse ikasleei. Hona hemen 4 urtekoak.

Begoñazpiren emonaldi bikaina Panaman izan dan munduko robotika finalean

Aste honetan, Panaman izan dan munduko finalean, gure robotika taldea osatzen daben Garazik, Amaiurrek eta Galderrek maila ona erakutsi dabe. Robotikako lau norgehiagokan irabazi eta beste horrenbestetan galdu ondoren, 25. geratu dira. Zorionak, talde!

